

Errenteria musikal Euskadiko gazte orkestran

Irakasle bat eta bi ikasle aukeratuak izan dira orkestra honetan jotzeko.

abel Perona kontrabaxu irakaslea 24 urte, Jorge Pacheco, 16 urte, eta Igor Astarbe, 18 urte, perkusio ikasleak, hirurak Errenteria Musikaleko kideak, E.G.O. (Euskadiko Gazte Orkestran) jotzeko aukeratuak izan dira. OARSO aldizkarira ekarri ditugu euren iritziak, asmoak eta ilusioak jaso asmoz.

IGOR ASTARBE.

Galdera. Noiz eta nola hasi zen Igor Astarbe musikan?

Erantzuna. Musikakin hasi nintzen txikitan. Zazpi edo zortzi urte nituela solfeoarekin, amak bultzatuta. Perkusioarekin berriz hamar urterekin. Beste batzuek bibolina edo beste edozein instrumentu hartu zuten bezala ni perkusioan hasi nintzen. Egia esan irakasle batek esan zidan perkusioan hasteko, kantatzeko ez nuen gehiegi balio eta esan zidan, " sar zaitetz perkusioan hori joango zaizu eta", ritmeatzen ona nintzelako edo perkusiora bultzatu ninduten. Eta horrela hasi nintzen.



Igor Astarbe

G. Perkusioa hautatu zenuenean, zer pensatzen zenuen zela?

E.Ni sartu nintzan perkusioan pentsatuz hau izango zela, bonboa, bateria, eta tanborra.

G. Eta ez da hori bakarrik?

E. Ezta gutxiago ere. Perkusioan instrumentu pila daude. Esan daiteke beste instrumentuak ez direnak, perkusioan sartzen direla. Laminako instrumentuak daude, xilofonoa, marinba, orkestretako tinbalak daude, garrantzi handia dutenak, kajak, instrumentu txikiak, panderetak daude, instrumentu latinoak, instrumentu asko dago.. eta ez dira ezagutzen, nahiz eta gero eta gehiago ezagutzen diren orain.

G. Eta instrumentu horiek denak menderatu behar dira perkusionista izateko?

E. Gehienak. Hemen (Errenteria Musikalen) ikasten dira gehienak.

G. Zein da perkusioan zuk gustokoen duzun instrumentua?

E. Marimba.

G. Eta hain gustoko ez duzuna?

E. Ba gehien laminazkoak guztatzen zaizkit , eta hain gustoko ez ditudanen artean, adibidez bateria ez dut ikasten, ez zait erakargarri egiten, nahiago ditut beste gauza batzuk. Behar bada hasiko banintz gustatuko litzaidake, baino nola ez dudana egiten .

G. Perkusionista batek orkestra batean zer funtzio dauka?

E. Batez ere, gehienetan, ritmoa eramatea. Zu zuzendariarekin batera zoaz eta bonboak duen funtzio nagusia ritmoa mantentzea da. Hori lehenago zen behar bada. Orain musika garaikidean perkusioa asko erabiltzen da lortu daitezken efektoengatik. Baina bonboa, platoak eta kaja beti izan dira ritmoa markatzeko.

G. Euskadiko Gazte Orkestrarako aukeratu izan zara perkusionista ordezkotza bezala. Zer suposatzen du zuretzako?

E. Nik iazko esperientzia dut. Titular bezala aritu nintzen. Iazkoa kontutan izanik batez ere nik

gehien estimatzen dudana ekartzen diguten irakaslea da, mundu mailan famatua den perkusionista bat. Berarekin perkusio obrak lantzea aberasgarrai da inongo ezpairik gabe. Beste alderdi garrantzitsua, ez dela orkestra profesional bat, baina ez da ikasle orkestra bat ere, tarteko zerbait da, esperientzia hori ere aberasgarria da.

G. Eta aurten zer plan duzue ?

E. Neguan bost kontzertu eman ditugu eta udaran beste bost, beraz hamar. Lan asko egiten da. Urtean bi aldiz juntatzen gara, eguarritan eta udaran, hamar egun inguru aldi oro, eta ez da erraza kontzertu bat montatzea hain egun gutxitan. Lan asko egiten da.

JORGE PACHECO

Pregunta. ¿Cuándo empezaste en la música?

Respuesta. Empecé con diez años, más que nada por ver a mi hermano. Le dije que me apuntara y me apuntó. Como mi hermana tocaba también percusión, veía que sacaba ruido pues yo también quería hacer "ruido". Y así empecé.

¿Entonces, era el ruido lo que te llamaba la atención en la persuasión?

R. Pues sí.

¿Tú eres hernaniarra aunque ahora estudias en Erreterria Musikal?

R. Efectivamente soy de Hernani. Hasta ahora he estudiado en Hernani y este año he pasado a Erreterria Musikal, porque allí no hay grado medio y no hay instrumentos, aquí hay muchos más.

De la variedad de instrumentos de la percusión, ¿cuál es el que a tí más te gusta?

R.- Los parches; caja, bombo, timbales, tontones, todo eso.

¿Y lo que menos te va?

Multipercusión. Son varios instrumentos de percusión a la vez, láminas, timbales, triángulo y pandeleta y cosas pequeñas de la percusión. Hay que combinar todas y es difícil.

Para llegar a ser elegido percusionista titular en la E.G.O ¿cuál ha sido el proceso?

R. Había que llevar unas obras preparadas, yo las estuve preparando toda la Semana Santa, y luego había que llevar dos obras de libre elección, una de láminas y otra de parches. Me salió bastante bien y me eligieron. La prueba consistía exacta-



Jorge Pacheco.

mente en tocar delante del director Juan José Mena y él juzgaba. Eramos nueve y había dos plazas de titular y yo me llevé una.

P.- ¿Qué es lo que más te ilusiona de la experiencia que vas a vivir en la E.G.O?

R.- El tocar con gente de mucho nivel y el profesor que traen para la sección de percusión, que es de los mejores a nivel mundial.

La música, que en principio fue un hobby para ti, se va a convertir en profesión, ¿es tu ilusión?

R. Sí. Cuando acabe C.O.U. espero dedicarme a la música.

Tus colegas cuando les dices que eres percusionista, ¿qué se imaginan que eres batería en algún conjunto?

R.- Al principio decían que era muy fácil eso de dar golpes, pero luego le he ido explicando en qué consiste esto. Además ven todas las horas que meto, me dicen que meto demasiadas. Vengo todos los días de la semana, y algún sábado y domingo también. Aprovecho las vacaciones para venir, ya que durante el curso, con el instituto no puedo dedicarle muchas horas.



Abel Perona

ABEL PERONA

G. Oriotar kontrabaxu hau nola hasi zen musikan?

E. Musikarekiko afizioa familitik datorkit. Nere aitona izan zen aintzindari familian. Gero nire aita eta bi osaba ere musikan arituak dira. Beraz familitik datorkit musikarako grina.

Zortzi urte nituela, nere urtemuga egunean bombardino bat oparitu zidaten.

G. Eta bonbardinotik nola pasa zinen kontrabaxura ?

Oraindik bonbardinoarekin jarraitzen dut, Hernaniko bandan nabil. Tronboia ere jotzen dut. Bonbardino eta tronboiarekin, txarangetan ibiltzen naiz eta kontrabaxuarekin serioago. Oso historio berezia izan zen kontrabaxuarekin hastearena. Nere aitona ofizioz txaroleroa da. Behin jaun bat etorri zen bibolin batzuekin aitonarena, txarolatzeko, eskuz barnizatutako istrumentoak emaitza hobea ematen dutelako. 13 urte neuzkan nik artean eta ikasteko gogo gutxi. Bibolinekin etorri zen gizon hura Donostiako kontrabaxu irakaslea zen, Carmelo Fernández. Ikusi nindun eta esan zidan, "Nik ikasleak behar ditut, zu mutil handia zara (14 urtekin 1'80ko altura nuen). Kontraba-

xua ikasi behar zenuke, horrela lan aukera izan dezakezu". Horrela ezagutu nuen instrumentua eta hasi egin nintzen. O.H.Oko 8 maila bukatu nuen eta buru belarri musikan hasi nintzen.

G. Soka instrumentuek zailak izatearen fama dute. Hasierak ez dira oso xamurrak izaten, eskala bat egiteko ere makina bat izerdi bota behar izaten da. Kontrabaxuarekin gauza bera gertatzen al da?

Kontrabaxuan zailtasun hori areagotu egiten da. Instrumenturik handiena da soka familian, distantziak handiagoak dira. Esan daiteke kontrabaxuarekin hiru urte behar direla bibolinekin urte betean lortzen dena lortzeko. Lehenengo bi urteetan zerbait lortzeko kosta egiten da, baina gero neretzako politena da.

G. Perkusionistek esan didate ritmoa eramaten zuzendariari laguntzen diotela, zuk etxe guztiari oinarria jartzen diozu. Hori erantzunkizun berezia al da?

Funtzio hori edukitzeak errespetoa ematen dizu eta noski erresponsabilidade pixkabat ere bai. Hutsune guztiak betetzen ditu eta gerta daitezkeen akats guztiak estaltzen ditu, etxe osoaren euskarria bezala da, armonia guztia. Orkestra batean ez badago kontrabaxurik, orkestra hori ez da sinfonikoa.

G. Eta zu, zenbat orkestra sinfonikotan aritu zara ?

E. Donostian ikasten ari nintzela Orkestra txikin urte pila egin nuen, gero Tomás Aragüesekin orkestra handian, bi edo hiru urte eman ditut, baita ere banda sinfonikoan, pikutara joan zen arte. Eta Erretereriako orkestrarekin ere aritua naiz. Erretereria Musikaleko irakasle azken bi urte hauetan aritu naiz. Dena den erretereriarrekin nere lehen kontaktua Frantzia izan nuen 1993an mundu guztiko Gazte Orkestra jaialdi, topaketa batean.

G. Iaiok al dira zure ikasleak?

E. Denetarik daukat. Gazteak, helduxegoak, denetarik.

G. E.G.On egoteak ilusioa egingo du. Udarara begira zein lan egitasmo duzue?

E. Gogorra izango da. Eta erakargarriena, ikasteko eta hobetzeko izango dugun aukera.

Segovian Gazte Orkestren arteko lehiaketa bat dago eta guri dagokigu hasierako kontzertua eskaintzea Tchaikovskiren 4. Sinfoniarekin, eta hori ez da auntsaren gaberdiko eztula.

Suerte hiruroi.